



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

EtxegintzaVivienda

Mari, 1 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20003 Donostia / San Sebastián



**DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN
BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ERAIKINEN GARBIKETA, ETA
ARRATOI ETA INTSEKTU HILKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA
ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN
AGIRIA**

Edukia

I. XEDAPEN OROKORRAK	3
1. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN XEDEA	3
2. ARTIKULUA.- LIZITAZIO AURREKONTUA. KONTRATUAREN PREZIOA	7
3. ARTIKULUA.- ZERBITZUAREN FINANTZAKETA	8
4. ARTIKULUA. ORDAINTZEKO MODUA	8
5. ARTIKULUA.- JURISDIKZIOA	8
6. ARTIKULUA.- DATU PERTSONALEN BABESA	9
II. DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK	9
7. ARTIKULUA.- ESLEIPEN PROZEDURA ETA MODUA. KONTRATUAREN IZAERA	9
8. ARTIKULUA.- LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:	10
9. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA	12
10. ARTIKULUA.- KONTRATAZIO ORGANOA. EBALUAZIO BATZORDEA.	15
11. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA	15
12. ARTIKULUA.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK	16
13.-. ARTIKULUA.- KONTRATUA ESLEITZEA. ESLEITU AURREKO DOKUMENTAZIOA	17
14. ARTIKULUA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA	19
III. - KONTRATUA GAUZATZEA	20
15. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ARDURADUNA	20
16. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN IRAUPENA.	20
17. ARTIKULUA.- KONTRATUAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.	20
18. ARTIKULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA.	22
19. ARTIKULUA.- FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK	23
20. ARTIKULUA.- PREZIOAK BERRIKUSTEA	23
21. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ALDAKETAK	24
22. ARTIKULUA.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA	25
23. ARTIKULUA.- KONTRATISTAREN LAN, GIZARTE ETA EKONOMIAKO OBLIGAZIOAK	25
24. ARTIKULUA. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA	25
25. ARTIKULUA. BERMEA ITZULTZEA	26
I.A ERANSKINA - BEHIN BETIKO BERMEAREN ABAL EREDUA	27
I.B ERANSKINA - BEHIN BETIKO BERMEKO KAUZIO ASEGURU EREDUA	28
II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA	30
III. ERANSKINA - PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA, ALDI BATERAKO ENPRESARIEN ELKARTEAK AURKEZTEN DIRENEAN	32
IV. ERANSKINA - JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA ERAKUNDE MAILAKO GARDENTASUN ADIERAZPENA.	33

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.ARTIKULUA.- KONTRATUAREN XEDEA

1. Lizitazioaren xede da, alokairu-erregimenean lagatako ondoren aipatuko diren Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako babes publikoko eraikinen garbiketa eta arratoi- eta intsektu-hilketa zerbitzua kontratatzea:
2. Zerbitzua eskaintzeko ondorengo eginkizun hauek burutu beharko dira: eraikin bakoitzeko atarien, bertako garajeetako sotoko solairuen eta zona komunen garbiketa, eta aipatutako komunitateetako trastelekuetako zona komunetan eta garajeetan intsektu- eta arratoi-hilketa.
3. Esleipenaren helburuetarako, aurretik jada zehaztuta dagoen zerbitzua ondoren aipatuko ditugun lotetan banatuta dago, eta lote baterako, batzuetarako edo guztietarako aurkez daiteke eskaintza.
4. Garbitzeko, eta arratoi- eta intsektu-hilketak egiteko Agiri honetan aurkeztutako eraikinen zerrendak ez dira itxiak; izan ere, kontratua esleitu ondoren, eta premia berriek hala eskatzen badute, zerrendan ez dauden beste eraikin batzuk erantsi ahal izango dira. Kasu horretan kontratua aldatu egingo da. Zerrendan, kontratistak zerbitzua eskaini beharko lukeen beste eraikin batzuk —adibidez, izenpetutako kontratuak amaitu direlako edo beste premia batzuk hauteman direlako— sartuko lituzke Erakundeak. Era berean, gaur egun eraikita ez dauden eta kontratua indarrean egongo den epean egingo diren beste eraikin batzuetara ere zabal daitezke garbiketa-lanak, eta arratoi- eta intsektu-hilketa lanak.

Kontratu-aldaketa horiek 21. artikuluan aurreikusitako moduan burutuko dira.

5. Kontratuaren xedearen barne sartuta daudela ulertuko da beharrezko garbiketa-produktuak, eta arratoi- eta intsektu-hilketak egiteko produktuak. Bertan ere sartuta egongo dira hondakinak erretiratzea eta Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian finkatutakoan adierazitako eskaini beharreko prestazio guztiak.
6. Kontratua gauzatzeko garaian, egoera bakoitzerako egokienak iruditzen zaizkion garbiketa-produktuak, eta arratoi- eta intsektu-hilketak egiteko produktuak jarriko ditu esleipendunak, betiere, ingurumen-araudiaren arabera, ezaugarri kimikoei, osagaiei, erabiltzeko moduari, toxikotasunari, segurtasunari eta erabilera-dosifikazioari buruzko zehaztapenak errespetatuz.

LOTEA	KALEA	Ataria	MOTA	ETXEBIZITZA KOP.	GARAJE KOP.
1	BERRABEHEA	004	ATARIA	10	0
	BERRABEHEA	005	ATARIA	10	0
	BERRABEHEA	006	ATARIA	12	0
	BERRABEHEA	007	ATARIA	10	0
	BERRABEHEA	009	ATARIA	10	0
	BERRABEHEA	011	ATARIA	10	0
	BERRABEHEA	013	ATARIA	10	0
	BERRABEHEA	015	ATARIA	10	0
	CASARES PASEALEKUA	009	ATARIA	10	0
	CASARES PASEALEKUA	011	GARAJEAK	0	12
	CASARES PASEALEKUA	011	ATARIA	12	0
	SERAPIO MUJIKA PAS.	013	ATARIA	24	0
	SERAPIO MUJIKA PAS.	015	ATARIA	26	0
	SERAPIO MUJIKA PAS.	017	ATARIA	26	0
	SERAPIO MUJIKA PAS.	019	GARAJEAK	0	24
	SERAPIO MUJIKA PAS.	019	ATARIA	24	0
Guztira 1				204	36
2	ANDOAIN	046	ATARIA	13	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	001	ATARIA	17	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	002	ATARIA	16	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	003	ATARIA	14	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	004	ATARIA	8	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	005	ATARIA	18	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	006	ATARIA	18	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	007	GARAJEAK	0	12

LOTEA	KALEA	Ataria	MOTA	ETXE BIZITZA KOP.	GARAJE KOP.
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	007	ATARIA	12	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	008	ATARIA	18	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	009	ATARIA	18	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	010	ATARIA	8	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	011	ATARIA	16	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	012	ATARIA	16	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	013	ATARIA	14	0
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	014	GARAJEAK	0	12
	EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN PAS.	014	ATARIA	12	0
	ORIAMENDI PASEALEKUA	018	ATARIA	8	0
	ORIAMENDI PASEALEKUA	020	ATARIA	12	0
Guztira 2				238	24
3	MARAÑON DOKTOREAREN PAS.	022	GARAJEAK	0	56
	MARAÑON DOKTOREAREN PAS.	022	ATARIA	56	0
	GOIKO GALTZADA BERRIA	008	GARAJEAK	0	11
	GOIKO GALTZADA BERRIA	008	ATARIA	8	0
	GOIKO GALTZADA BERRIA	010	GARAJEAK	0	0
	GOIKO GALTZADA BERRIA	010	ATARIA	8	0
	GOIKO GALTZADA BERRIA	012	ATARIA	8	0
	GOIKO GALTZADA BERRIA	014	ATARIA	8	0
	HIRU DAMATXOEN PLAZA	009	GARAJEAK	0	30



LOTEA	KALEA	Ataria	MOTA	ETXE BIZITZA KOP.	GARAJE KOP.
	HIRU DAMATXOEN PLAZA	009	ATARIA	30	0
	HIRU DAMATXOEN PLAZA	010	ATARIA	30	0
	KATALINA ELEIZEGI	019	ATARIA	12	0
	KATALINA ELEIZEGI	021	ATARIA	12	0
	KATALINA ELEIZEGI	023	ATARIA	12	0
	KATALINA ELEIZEGI	025	GARAJEAK	0	12
	KATALINA ELEIZEGI	025	ATARIA	12	0
	PINU BIDEA	027	GARAJEAK	0	48
	PINU BIDEA	027	ATARIA	48	0
Guztira 3				244	157
4	GABRIEL M. LAFITTE PLAZA	003	ATARIA	27	0
	MORLANS PASEALEKUA	002	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	003	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	004	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	005	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	006	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	007	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	008	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	009	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	010	GARAJEAK	0	14
	MORLANS PASEALEKUA	010	ATARIA	14	0
	MORLANS PASEALEKUA	011	GARAJEAK	0	14
	MORLANS PASEALEKUA	011	ATARIA	14	0
	NEMESIO ETXANIZ	001	ATARIA	25	0
	NEMESIO ETXANIZ	003	ATARIA	27	0
Guztira 4				219	28
5	ANDER ARZELUS PLAZA	001	ATARIA	14	0
	ANDER ARZELUS PLAZA	002	ATARIA	14	0
	ARJEL PASEALEKUA	002	GARAJEAK	0	67
	ARJEL PASEALEKUA	002	ATARIA	67	0
	HARROBIETA PLAZA	007	ATARIA	36	0
	HARROBIETA PLAZA	008	ATARIA	23	0
	HARROBIETA PLAZA	009	ATARIA	12	0

LOTEA	KALEA	Ataria	MOTA	ETXEBIZITZA KOP.	GARAJE KOP.
	IGNACIO UGARTE PLAZA	001	GARAJEAK	0	44
	IGNACIO UGARTE PLAZA	001	ATARIA	44	0
	IRASMOENE	001	ATARIA	12	0
	MARIA DOL. GOIA PLAZA	001	GARAJEAK	0	83
	MONS PASEALEKUA	005	GARAJEAK	0	61
	MONS PASEALEKUA	005	ATARIA	61	0
	MONS PASEALEKUA	087	GARAJEAK		62
Guztira 5				283	317
6	BENTABERRI PLAZA	006	ATARIA	50	0
	ILLARRA BIDEA	010	GARAJEAK	0	48
	ILLARRA BIDEA	010	ATARIA	24	0
	ILLARRA BIDEA	012	ATARIA	24	0
	LASARTE PLAZA	001	ATARIA	15	0
	LASARTE PLAZA	002	ATARIA	10	0
	LASARTE PLAZA	003	ATARIA	20	0
	LASARTE PLAZA	004	GARAJEAK	0	13
	LASARTE PLAZA	004	ATARIA	20	0
	LASARTE PLAZA	005	ATARIA	10	0
	LASARTE PLAZA	006	ATARIA	15	0
	AITA ORKOLOAGA PAS.	014	ATARIA	6	0
	AITA ORKOLOAGA PAS.	016	ATARIA	6	0
Guztira 6				200	61

2. ARTIKULUA.- LIZITAZIO AURREKONTUA. KONTRATUAREN PREZIOA

1. Hona hemen lote bakoitzaren lizitazio-aurrekontu maximoak:

LOTEA	ZERBITZUAREN URTEKO AURREKONTU MAX.	BEZ	GUZTIZKOA BEZ BARNE
1	30.291,83 €	6.361,28 €	36.653,11 €
2	30.718,23 €	6.450,83 €	37.169,06 €
3	29.835,39 €	6.265,43 €	36.100,82 €
4	30.574,30 €	6.420,60 €	36.994,90 €
5	27.017,38 €	5.673,65 €	32.691,03 €

6	21.996,55 €	4.619,28 €	26.615,83 €
Guztizko orokorra	170.433,68 €	35.791,07 €	206.224,75 €

- Zazpi loteei dagozkien kontratuen guztizkoaren balio zenbatetsia —16. artikuluan aurreikusitako luzapen posibleak kontuan hartuta— eta lote bakoitzaren % 20ra arteko aldaketa 818.081,66 euro (ZORTZIEHUN ETA HEMEZORTZI MILA, LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMO) da, gehi BEZaren % 21i dagozkion 171.797,15 euro.
- 2.3. Kontratuaren prezioa kontratu hori esleitu eta formalizatu ondoren adosten dena izango da. Inoiz ez du lizitazio-aurrekontua gaindituko eta prezio itxia izango da. Eurotan adierazi beharko da, dagokion BEZa banakatuta. Gainera, kontratistak kontratuaren eta Agiri honen zein Baldintza Teknikoen Agiriaren ondoriozko betebeharrak guztiak bere gain hartuko ditu.
- Kontratuaren prezioan balorazio-faktore guztiak sartuta daudela ulertuko da, hots, zergak, eskubideak, tasak, kontratua eta bere exekuzioa dela eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren gainerako kargak, ordejarriak, joan-etorriak, langile-gastuak, laneko arriskuen prebentzioko gastuak, makineria, beharrezko garbiketa-produktuak eta abar. Bertan ere sartuta egongo dira, kontratu-dokumentuen eta indarreko legeriaren arabera esleipendunaren kontura izango direnak, baita garbiketa-zerbitzuak, eta arratoi- eta intsektu-hilketen zerbitzuak eskaintzetik ondorioztatzen direnak ere.

3. ARTIKULUA.- ZERBITZUAREN FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurtengo aurrekontuaren kargura aurreikusi da finantzaketa. Era berean, aurrekontu-gaieran eskumena duen organoak hitzematzen du bidezko kredituak gordeko dituela dagozkion etorkizuneko ekitaldietan.

4. ARTIKULUA. ORDAINZEKO MODUA

- Enpresa esleipendunak, benetan egindako lanaren eta adostutakoaren arabera kobratzeko eskubidea izango du.
- Prezio hori hileroko ordainduko da, enpresak dagokion faktura aurkeztu ondoren. Bertan, lote bakoitzerako, urteko esleipenaren zenbatekoa hamabi hilerokotan zatituta kalkulaturako kopura ordainduko da.
- Fakturak komunitate bakoitzari dagokion zenbatekoa xehatu beharko du, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren argibideak betez.
- Prezioaren ordainketa egingo da, faktura xehatua Erakundearen erregistroan aurkeztu ondoren eta, gehienez 30 eguneko epean, Sail Teknikoko arduradunak onespena eman eta gero.

5. ARTIKULUA.- JURISDIKZIOA

- Kontratua prestatzearekin eta esleitzearekin lotuta gerta daitezkeen gatazkek eta kontratazioko baliabide bereziaren ebazpenak argitzeko jurisdikzio eskuduna administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da; kontratuaren exekuzioarekin eta iraungitzearekin lotura sortuko diren gai guztietan, berriz, jurisdikzio zibilak izango du eskuduntza.
- Lizitatuak uko egiten diote dagokien foruari, hala badagokio, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari dagozkion Epaitegiek eta Auzitegiek erabakitakoa onartuko dute.

6. ARTIKULUA.- DATU PERTSONALEN BABESA

1. Enpresa esleipendunak eta bere langileek kontratua gauzatzegatik ezagututako datu pertsonalen sekretu profesionala gordetzeko betebeharra dute, eta kontratua amaituta ere, betebeharrak hori indarrean egongo da, abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluko arabera.
2. Esleipendunaren betebeharra da bere langileei prestakuntza eta informazioa ematea, zerbitzua eskaintzean egingo dituzten lanetan datuen babesarekin lotuta bete beharreko betebeharrak buruz, bereziki sekretua gordetzeko eginbeharrak buruz. Halaber, enpresa esleipenduna izango da erantzulea bere langileek adierazitakoa ez betetzeagatik eragin daitezkeen lege-urraketen aurrean.
3. Kontratua betetzeko eskaintzen diren zerbitzuak garatzean esleipendunak eta bere langileek zorrotz beteko dituzte kasuan-kasuan dagokien lana garatzen duten tokiko segurtasun-dokumentuak.
4. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoa eta hura garatzeko arau guztiak ere bete behar ditu kontratua hartzen duen enpresak.
5. Akordio hau aurrera eramateko datu pertsonalak erabili behar dira, eta, beraz, datu pertsonalak babesteari buruzko Legeko 12. artikuluko jartzen duenez, kontratua hartzen duena tratamendu-eragilea izango da, eta Fitxategiaren arduraduna Erakundea.
6. Hori horrela izanik, tratamenduaren arduradunak honako hauek egin beharko ditu nahitaez:
 - Datu horiek kontratua egikaritzeko erabiltzea, ez beste ezertarako, eta fitxategiaren arduradunak emandako zehaztapenen arabera egitea tratamendua.
 - Datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak izan ez daitezen zaintzea, zehatzak direla eta aldizka eguneratzen direla bermatuta.
 - Zerbitzua emateko eskura dituen hirugarrenei datuak ez lagatzea, ezta komunikatzea ere, fitxategiaren arduradunaren baimenik gabe.
 - Fitxategiaren arduradunak, zerbitzua amaitutakoan, erabaki beharko du tratamenduaren arduradunak datuak itzuli edo suntsitu egin behar dituen.
- Kontratuaren indarraldian eta amaitutakoan ere, datu pertsonalak babesteari buruzko Legearen 10. artikuluan aipatzen den sekretu profesionalaren eginbeharrak eustea eta betetzea.
- Tratamendu-arduradunak tratamenduaren xede diren izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurriak —teknikoak nahiz antolaketa-izaerakoak— hartu beharko ditu, betiere datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren garapen-erregelamenduan xedatutakoak izanik, datu pertsonalak babesteari buruzko 9. artikuluko arabera, eta tratatutako datuen segurtasun-mailarekin bat etorritik.

II. DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK

7. ARTIKULUA.- ESLEIPEN PROZEDURA ETA MODUA. KONTRATUAREN IZAERA

1. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 190. artikuluan xedatutakoa betez eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontrataziorako barne-jarraibideak kontuan hartuta, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da.
2. Agiri honen arabera osatzen den kontratua, kontratu pribatua izango da. Zerbitzuen kontratu gisa kalifikatzen da eta Agiri honetan jasotako artikuluen eta Baldintza Teknikoen Agiriaren arabera

arautuko da; eta bertan aurreikusten ez den gaietan, barne-ordenamendu juridikoan eragin zuzena duten edo transposizioa egin duten 2014/24/UE Zuzentarauaren arabera; eta hauen aurka ez doazen bitartean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuetarako.

3. Horretaz gain, SPKLTBa eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua aplikatuko dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez arau horietan aurreikusitakoaren aurka ez doazen bitartean, eta Agiri hau testu arauemaile horiei espresuki lotuta dagoen guztian.
4. Prestakuntzari eta esleipenari dagokienez, kontratua Ekonomia eta Administrazio Klausulen Agiri honen arabera arautuko da, eta aurreikusita ez dagoen arloetan, barne-ordenamendu juridikoan eragin zuzena duten edo transposizioa egin duten 2014/24/UE Zuzentarauaren xedapenen arabera, baita SPKLTBaren 157., 158., 159. eta 190. artikuluetan ezarritakoaren arabera ere. Dena dela, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa herri-administrazio bat ez denez, beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira.
5. Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Klausula Ekonomiko Administrazioen Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontratatzeke barne-aginduek arautuko dute kontratua, baita aplikatzekoa den zuzenbide pribatuko arauak aurreikusten ez duten guztian ere. Hala ere, barne-ordenamendu juridikoan eragin zuzena duten edo transposizioa egin duten 2014/24/UE Zuzentarauaren xedapenak aplikatuko dira eta, edozein kasutan, kontratuen aldaketari buruz SPKLTBaren I. Liburuko V. Tituluan xedatutakoa.
6. Erregulazio harmonizatuaren mende dagoen kontratu bat denez, SPKLTBaren 40. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako berrikusteko araubide berezia aplikatuko da. Berrikusteko errekurtsio berezia Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren erregistroan, Donostiako Udaleko Erregistro Orokorrean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsioen Administrazio Organoan aurkeztu ahal izango da.

8. ARTIKULUA.- LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

8.1 GAITASUN BALDINTZAK

8.1.1 Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratazioak egiteko eskumena dute pertsona naturalek eta juridikoek, espainolek zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmena badute, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala ziurtatzen badute eta sektore publikoarekin kontratazioak egiteko debekurik ez badute (SPKLTBaren 60. artikuluan bildu dira debekatutako egoerak).

8.1.2 Kontratatzeke debekurik ez dagoela frogatzeko, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

8.2.- GAITASUNA

8.2.1 Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izango dira, baldin eta kasuan-kasuan estatutuen edo sorrera-arauen arabera, dituzten prestazioak dagokien helburu, xede edo jarduera-esparruekin bat badatoz.

8.2.2 Halaber, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte aldi baterako osatzen diren enpresari-elkartek, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 59. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi baterako enpresari-elkarteko enpresari bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen

ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dituela ziurtatu behar du, eta horretarako, ondorengo klausuletan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko dute. Gainera, dokumentu pribatu batean adieraziko dituzte enpresariaren izenak eta ezaugarriak, bakoitzak duen partaidetza eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango den pertsonaren edo entitatearen izena, eta Aldi Baterako Enpresa Elkarte gisa elkartzeko konpromisoa hartzen dutela dioen agiria (SPKLTBaren 24. art.). Agiri hori Elkarte osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko dute.

8.2.3 Proposamenak aurkezteak lizitatuak Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako klausulak bere osotasunean eta inolako salbuespenik gabe onartzea dakar berekin. Horrez gain, Erakundearekin kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere eskatzen du.

8.3.- KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKOKO BALDINTZAK

8.3.1 SPKLTBaren 62. artikuluan xedatzen denaren arabera, enpresariak kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen profesional zein teknikoari dagokionez, honako gutxieneko baldintza hauek betetzen dituztela ziurtatu behar dute ondorengo modu honetan:

a) Kaudimen ekonomikoari eta finantzarioari dagokionez:

Azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokion lizitatuaren urteko negozio-zifra lizitatzen d(ir)eneko lote(ar)en urteko lizitazioko aurrekontu maximoaren berdina edo handiagoa izan beharko du.

Horri dagokionez, azken hiru ekitaldietako urteko negozio-zifrari buruzko adierazpena aurkeztuko da, baldin eta ekitaldi horiei dagokionez urteko kontuak aurkezteko obligazioa amaituta badago.

b) Kaudimen teknikoari edo profesionalari dagokionez:

Azken 5 urteetan kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko zerbitzuak eginak eduki beharko dira. Kasu horretan, lanak ondo egin direla frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, eta gutxieneko baldintza honako hau izango da: exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa lizitatzen d(ir)eneko lote(ar)en prezio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izan behar duela.

Enpresak exekutututako lanen eta kontratu honen xede direnen arteko elkarrekotasun-irizpide gisa hartuko da sailkapen-azpitalde berekoak izatea.

Helburu horrekin ondoko hau aurkeztuko da:

Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda bat, kopuruak, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adieraziz.

Akreditazio hori etxebizitzaren komunitateko idazkariaren ziurtagiri baten bidez egingo da, bertako presidentearen edo, hala badagokio, garbiketa-zerbitzua eskaini zaion erakundearen, administrazioaren edo enpresaren arduradunaren edo pertsonen oniritziarekin. Hala badagokio, eta jasotzaileak publikoak ez badira eta ziurtagiri horiek ez badituzte, euren ordezkari zintzeko aitortpen bat aurkeztu ahal izango dute.

8.3.2 Enpresariaren kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta teknikoaren justifikazioaren ordezkari, ondorengo bi talde hauetako batean sailkatuta dagoela justifikatzen duen dokumentazio bat aurkez daiteke:

- 2015eko abuztuaren 773/2015 Errege Dekretu bidez aldatutako urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 37. eta 38. artikuluetan ezarritakoen arteko U taldea, 1. azpitaldea, X kategoria.

- 2015eko abuztuaren 773/2015 Errege Dekretu bidez aldatutako urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 37. eta 38. artikuluetan ezarritakoen arteko M taldea, 1. azpitaldea, X kategoria.

8.3.3 Europako Parlamentuaren 2014/24/UE Zuzentarauaren 59. artikuluan ezarritakoa eta 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen (UE) 2016/7 Betearazteko Araudian ezarritakoa ikusita, artikulua honetan ezarritako dokumentazioaren hasierako ekarpenaren ordez, lizitatzaileren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da. Horretarako, Araudi horretako II. Eranskin gisa jasotako araudi horretan adierazitako Kontratatzeko Dokumentu Europar Bakarraren (aurrerantzean KDEB) formulario normalizatua beteko du, I. Eranskin gisa bertan adierazten diren jarraibideen arabera.

Formularioa ondorengo helbide honetan eskuratu ahal izango da:

<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lnag=es>

Hala ere, eta Agiri honetako 13. artikuluan finkatutakoaren arabera, eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailak, kontratua esleitu aurretik, KDEBaren bidez formulatutako erantzukizunpeko adierazpenaren ordez, Erakundeari egokiak iruditzen zaizkion ziurtagiri edo dokumentu ofizialak aurkeztu beharko ditu.

8.3.4 Aipatutako kaudimen-irizpideak betetzen ez badira, Ebaluazio Batzordeak prozedura honetatik at utziko du lizitatzaila.

8.3.5 SPKLTBaren 63. artikuluan xedatutakoa betez, enpresariak beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak erabili ahal izango ditu bere kaudimena ziurtatzeko. Xede horretarako, bitartekoen jabe den enpresarekin sinatutako akordioa sartu beharko da A gutun-azalean.

9. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

1. Lizitazio honen espedientea Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan egongo da (Mari kalea 1, behea, 20003 Donostia), nahi duenak aztertzeko, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.
2. Leku berean, iragarkia EBAOra igortzen den datatik kontatzen hasi eta berrogeita bat egun naturaleko epean —data hori Erakundearen Kontratatzaileraren Profilean argitaratuko da— proposamenak aurkeztu ahal izango dira, eta beti, epe horren azken eguneko 14:00ak arteko mugarekin. Proposamenak hiru gutun-azal itxitan aurkeztuko dira (A, B eta C), derrigorrezko dokumentazioarekin batera, eta lizitatzaileren izena edo helbide soziala adieraziko da guztietan, eta kanpoaldea lizitazioari dagokion kontratuaren izena idatziko da: "Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Babes Publikoko Etxebizitzaren eraikinen garbiketa-zerbitzuaren kontratu baten esleipenean parte hartzeko proposamena", enpresaren edo profesionalaren izena, proposamena sinatzen duen pertsonaren izena eta abizenak eta zein lotetara aurkeztu den. Gutun-azalaren barruan, aparteko orri batean, dokumentuen zerrenda bat osatuko da, artikulua honetan zehaztutakoaren arabera zenbakitua, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak jakinarazpenak edo eskaerak bidaltzeko harremanetarako pertsona bat, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa adieraziko dira, halaber.
3. Aipatutako epea igarota aurkeztu diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta Correos-en epea amaitu aurretik aurkeztu. Salbuespena izango da eskaintza bidaltzeko data eta proposamena postaz bidaltzeko data bat etortzen diren kasuak (kasu horretan, posta elektronikoa, telex edo telegrama bidez justifikatu beharko da). Edozein modutan, zehaztutako datatik hamar egun natural igarotzean ez bada justifikaziorik jasotzen, eskaintza baztertu egingo da.
4. Kontratuzko proposamenak edo eskaintzak eskuz aurkeztu badira Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan (Mari kalea 1, behea, 20003 Donostia), proposamen bakoitza jaso izanaren ziurtagiri bat emango da, eta bertan adieraziko dira lizitatzaileren izena,

lizitazioaren obraren izena eta proposamena aurkezteko eguna eta ordua. Proposamena aurkeztu eta gero, ezin izango da atzera bota eta lizitatzailleak proposamena gordetzeko betebeharra izango du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita hiru hilabeteko epean.

5. Lizitatzaille bakoitzak lote bat baino gehiagotarako proposamena aurkeztu ahal izango du. Proposamenen bat aurkeztu duten enpresek ezingo dute beste proposamenik sinatu aldi baterako elkarte batean beste enpresa batzuekin. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaille horrek izenpetutako proposamen guztiak baztertu egingo dira.
6. Proposamenak aurkeztean lizitatzailleak agiri honetako eta gainerako kontratuzko dokumentuetako klausulak baldintzarik gabe onartzen dituela ulertuko da; halaber, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta zerbitzua kontratatzeke eskatzen diren baldintza eta betekizun guztiak betetzen direla ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.
7. Lizitazio-aurrekontu maximoa gainditzen duten, oker formulatuta dauden edo hutsak, akatsak dituzten edo Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarentzako eskaintza aintzat hartzeko funtsezkoak diren xehetasunak ezagutzea eragozten duten ezabaketak dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

A GUTUN AZALA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA. Bertan ondorengoa bilduko du:

Lehenena.- Bere izenean zein ahaldun bézala proposamena aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.

Bere izenean jarduten ez duenean edo sozietatea edo pertsona juridikoa denean, kasuan-kasuan dagokion pertsonaren edo erakundearen izenean jarduteko ahalmen nahikoa aitortzen duen ahalordetze-agiria aurkeztu behar da. Kasu horretan, ahalordetzea Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatuta egongo da eta aipatutako erregistroko ziurtapena aurkeztu beharko da, indarrean dagoela ziurtatzeko.

Bigarrenena.- Lizitatzaillea pertsona juridiko bat denean, eratze- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio; Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatuta egongo da, identifikazio fiskaleko zenbakiarekin batera, kasuan-kasuan ezar daitekeen merkataritza-legeriak horrela eskatzen badu. Agiri guztiak behar den bezala konpultsatuta aurkeztuko dira. Horrela ez bada, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko eskritura edo eratze-dokumentua, estatutuak zein eratze-egintzaren agiria aurkeztuko dira. Agiri horietan adieraziko dira jarduera arautzen duten arauak, eta jarduerari dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

Europar Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarren jarduteko ahalmena frogatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan.

Hirugarrenena.- Aldi Baterako Enpresa Elkartearen kasuan, lehiatzen diren aldean izenak eta ezaugarriak adierazi beharko dira, baita bakoitzaren partaidetza ere, eta ordezkariak edo ahaldun bakarra izendatuko dira, kontratuko eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ahalmen nahikoa edukiko dutena; eta, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako elkarte bihurtzeko konpromisoaren agiria aurkeztuko da.

Laugarrenena.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatutako kontratatzeke debekuetan nahastuta ez egotea. Gainera, berariaz ziurtatu beharko da indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela.

Bosgarrenena.- Baldintzen Agiri honen 8. artikuluan adierazitako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional eta teknikoaren baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa.

Seigarrena.- Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, lizitatuzaileari egoki lekiokoen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten dioten berriarazko adierazpena aurkeztuko dute.

Zazpigarrena.- IV. eranskin gisa agertzen den dokumentua, jakinarazpenen ondoriotarako behar bezala beteta. Dokumentu horretan jaso beharko da lizitazio-, esleipen- eta gauzatze-prozesuaren ondoriozko datu guztiak erakunde-mailako gardentasuna emateko lizitatuzaileak bere borondatez onartzeko adierazpena, prozesua amaitu arte (esleipendun suertatuz gero).

Zortzigarrena.- Europako Parlamentuaren 2014/24/UE Zuzentarauaren 59. artikuluan ezarritakoa eta 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen (UE) 2016/7 Betearazteko Araudian ezarritakoa ikusita, lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan ezarritako dokumentazioaren hasierako ekarpenaren ordeztu, lizitatuzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da. Horretarako, II. Eranskin gisa jasotako araudi horretan adierazitako Kontratatzeko Dokumentu Europar Bakarraren (aurrerantzean KDEB) formulario normalizatua beteko du, bertan I. Eranskin gisa adierazten diren jarraibideen arabera.

Dena dela, eta prozedura behar bezala egiten dela bermatzeko, kontratazio-organoak —esleipen-proposamena hartu aurretik edozein unetan— kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak bildu ahal izango ditu.

B GUTUN AZALA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA – IRIZPIDE AUTOMATIKOAK.

1. Gutun-azal honetan lizitatuzaileak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen bakar bat sartuko da. Agiri honetan adierazitako ereduak (II. eta III. eranskinak) jarraituko dira proposamenak osatzeko eta balorazio-faktoreak eskaintako prezioan barne hartuko dira, baita ordejarriak, joan-etorriak, langileen gastuak eta kontratu-dokumentuen eta indarrean dagoen legeriaren arabera, esleipendunaren kontura den beste edozein gastu ere. Lizitatuzaileak aurkeztutako eskaintzak aplikatzekoak zaizkion zergak barne hartzen ditu, BEZa izan ezik, indarreko xedapenen arabera. BEZa aparte adieraziko da.
2. Proposizio horretan, lizitatuzaileek etxebizitza-komunitateei dagokien prezioaren zatia eta garajeen komunitateei dagokien zatia zehatu beharko dituzte.

C GUTUN AZALA.- PROPOSAMEN TEKNIKOA

Honako dokumentazio hau sartuko da gutun-azal horretan:

1. Aurkezten d(ir)en kontratuaren lote(ar)ekiko garbiketa, eta arratoi- eta intsektu-hilketa zerbitzuaren Plan Eragilea, plangintzaren, kudeaketaren eta administrazioaren zehaztasunarekin.
Plan Eragile honek, gutxienez, aldizkakotasunari buruz eta zerbitzuaren maiztasun-planari buruz Baldintza Teknikoen Agiriko 2. artikuluan ezarritakoa beteko du, eta eraikin bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta eskainiko du zerbitzua. Plan Eragileak honako hauek bereiziko ditu:
 - Lan Orokorraren Plangintza, eskaini beharreko zerbitzuen funtzionamenduaren egutegiarekin, eta esleitutako lanpostuak eta orduak identifikatuz, kontratua osatzen duten zerbitzuetako bakoitzari bere aldetik dagokionean.
 - Kontingentzien Plana, egoera horiek hobetzeko, murrizteko eta konpontzeko proposatzen dituen aldaketekin: absentismoa, oporrak, aparteko zerbitzuak, ordu sindikalak, makineriaren matxura, greba, etab.

2. Zerbitzuen Kalitate Kontroleko Plana, lanen jarraipena egiteko eta gainbegiratzeko kudeaketa-tresnen proposamenarekin, jardueraren kontrola, garbiketa-zerbitzura atxikitako langileen presentziaren kontrola, komunikazio-bideak, erreklamazioen kudeaketa, bezeroarenganako arreta, etab.
3. Langileen antolakuntza, zerbitzuaren organigrama aurkeztuz eta kontratuaren arduradun/hizketakide gisa proposatzen den pertsonaren curriculumari erreferentzia berezia eginez.
4. Kontratua betetzeko esleitutako baliabide materialen, ekipoen, makineriaren, tresnen, eta zerbitzua eskaintzen erabiliko diren ibilgailuen deskribapena. Marken eta ezaugarri teknikoek bidez identifikatuko dira.
5. 12. artikuluan finkatutako baldintzetan aipatzen diren aukerako proposamenak, hala badagokio.
6. Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetzeko asmoz, kontratuak indarreko legeen eta arauen xedapenak eta ohiko xedapenak —Lan, Gizarte Segurantzza eta Laneko Seguratasun eta Osasunaren alorrean aplikatzekoak— bete behar dituela ohartarazten da.

Testuinguru honetan, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zehaztuko dute lizitatzailleek beren proposamen teknikoan.

10. ARTIKULUA.- KONTRATAZIO ORGANOA. EBALUAZIO BATZORDEA.

1. Lizitazio honetako kontratazio-organoa Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoko Administrazio Kontseilua da.
2. Eskaintzak ebaluazio-batzordeak baloratuko ditu, 2012ko uztailaren 27ko Administrazio Kontseiluak onartutako kontratatzeke jarraibideak kontuan hartuta. Batzorde hori, administrazio-kontseiluko idazkariak edo berak eskuordetutako pertsonaz gain, honakoek osatuko dute: kontratuaren arduradunak, Erakundeko arkitekto teknikoak eta arlo juridikoko arduradunak edo azken hauek eskuordetzen dituzten pertsonak.

11. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

1. Proposamenak jasotzeko epea amaituta, Ebaluazio-batzordeak, barne-ekintza bidez, "A" KONTRATATZEKO GAITASUNA izeneko gutun-azaletan jasota legezko epean eta eran aurkeztutako agiriak kalifikatuko ditu alde zuzenetik. Helburu horrekin gutun-azalak zabaltzeko aginduko da, proposamen teknikoari eta ekonomikoari buruzkoa baztertuta, eta Idazkariak bertan jasotako dokumentuen zerrenda ziurtatuko du. Aipatutako dokumentazioan Batzordeak zuzendu daitezkeen akatsak hautematen baditu, interesdunei jakinaraziko die eta gehienez hiru egun balioduneko epea emango die enpresa lizitatzailleak akatsa konpon dezan.

3/2011 LEDko 54. artikuluan eta ondorengoetan adierazitako alderdiak egiaztatzeke dokumentazioa kalifikatu eta, huts materialik edo ez-egiterik izanez gero, haiek zuzendu ondoren, hautaketa-irizpideak (HAKLAOko 11. artikulua aipatzen dituenak) zein enpresak betetzen dituen erabakiko du Batzordeak, eta beraziaz aipatuko ditu zein diren lehiaketara onartutakoak, ez onartutakoak eta ez onartzeko arrazoiak.

3/2011 LEDko 54.etik 64.era bitarteko artikuluetan adierazitako ondorioetarako, Ebaluazio-batzordeak libre du enpresari aurkeztutako egiaztagirien edo dokumentuen gaineko azalpenak eskatzea edo beste batzuk aurkez ditzan agintzea, eta enpresak bost egun izango ditu hori egiteko. Dena dela, HAKLAOko 83.6 artikulua agintzen duen bezala, eskaintzak onartutak jo eta gero ez da aurkezteke biderik izango.

2. Ondoren, Ebaluazio-batzordea Goikoa Jauregian bilduko da eta, ekitaldi publikoan, "C" PROPOSAMEN TEKNIKOA gutun-azalak zabalduko ditu. Bertan, eskaintza bakoitzaren balorazio-txostena egingo da eta hori dokumentu bidez jasoko da.
3. Azkenik, eta ekitaldi publikoan ere, "B" PROPOSAMEN EKONOMIKOA – IRIZPIDE AUTOMATIKOAK gutun-azalak zabalduko dira, hauen balorazioa egiteko.
4. Beharrezkotzat jotzen duen kasuetan, Ebaluazio-batzordeak kontratua esleitzeko behar diren txosten teknikoak egiteko eska dezake.
5. Ez dira onartuko kontraesanak, ez-egiteak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, ebaluazio-batzordeak funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak garbi ezagutzea eragozten bada, eta ez dira onartuko aztertu eta onartu den dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, lizitazio mota gainditzen dutenak edo ezarritako proposamen-ereduarekiko nabarmen desberdintzen diren proposamenak.
6. Haiek ebaluatu eta gero, anormalaz edo neurritz kanpokotzat jo ez diren proposamenak handienetik txikienera sailkatuko dira. Sailkapen hori egiteko, agiri honetako 12. artikuluan adierazitako esleipen-irizpideak hartuko dira kontuan.
7. Bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdintasuna egonez gero, eskaintza tekniko hobearen aurkezten duen enpresaren proposamena gailenduko da. Berdintasunak jarraitzen badu, eskaintza ekonomiko onena aurkezten duen enpresari emango zaio lehentasuna esleipenean.
8. Amaitzeko, Ebaluazio-batzordeak Kontratazio Organoari, neurritz kanpokotzat eta anormaltzat aitortu ez diren aurkeztutako proposamenen zerrenda igorriko dio, eta ekonomikoki eskaintza abantailatsuenak identifikatuko ditu.

12. ARTIKULUA.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Lote bakoitza esleitzeko akordioa hartzeko, kontratazio-organoak ondoren xedatzen diren irizpideak hartuko ditu kontuan:

1.- Proposamen ekonomikoa (gehienez 60 puntu)

1.1. Ondorengo formula matematikoa erabiliz baloratuko da:

Izanik,

OLic: Lizitatzaileraren eskaintza ekonomikoa

OMed: Aurkeztutako eta onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa

UTm: Ausarkeria-atalasea, kasu honetan, aurkeztutako eta onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren ehuneko 10en gainetik dagoen zenbateko txikiagoa.

$UTm = \% 90 \times OMed$:

PLic: Lizitatzaileraren puntuazioa

T1: Lehen balorazio-tarteari dagozkion puntuak $T1 = \% 95 \times PuntuMax$

T2: Bigarren balorazio-tarteari dagozkion puntuak $T2 = PuntuMax - T1$

Ondorengo balorazio-tarte hauek finkatzen dira:

($OLi \geq UTm$) bada, puntuak honela emango dira:

$PLic = Utm / Olic \times T1$

2- (OLic < UTm) bada eta onargarritzat jo bada, eskaintza honela baloratuko da:

$$PLic = T1 + T2 \times (1 - Olic / Utm)$$

Lizitazioko aurrekontu maximoa hobetzen ez duten eskaintzek zero (0) puntu eskuratuko dituzte atal honetan.

1.2. Onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino ehuneko 10 puntu baino gehiago azpitik duten eskaintzak anormaltzat edo neurritz kanpokotzat joko dira.

Balio anormaltzat edo neurritz kanpokotzat jotako eskaintzen kasuan SPKLTBaren 152.3. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko da.

Prezioa baloratu ahal izateko kontuan hartuko dira kontratazio-organoak onartu dituen alde zuzenetik justifikatutako balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak.

2.- Proposamen teknikoa (gehienez 40 puntu)

2.1. Atal honetan ondorengo alderdiak baloratuko dira:

a) Plan eragilea. Gehienez 15 puntu.

Plan horren zehaztapena baloratuko da, enpresak eraikin bakoitzean egingo dituen zereginen buruz lanaren plangintzaren erakundeak kontratatzekeko suszeptibilitateari eta edukiari dagokienez. Halaber baloratuko da, horren inguruan bakoitzak egindako fitxa edo txostena koherentea, ondo idatzia eta zehatza izatea, eraikin bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Era berean, kontratua betetzeko esleitutako baliabide teknikoak eta pertsonalak eta kontingentzien plana baloratuko dira atal honetan, zerbitzua ematean eragozpenik ez sortzeko.

b) Zerbitzuen kalitate-kontrolako plana. Gehienez 20 puntu.

Lanak jarraitzeko eta gainbegiratzeko kudeaketa-tresnen proposamena, Erakundearekin komunikazio-bideak, erreklamazioen kudeaketa, bezeroekiko arreta, jardueraren kontrola eta abar baloratuko dira.

Kalitate-kontrolako planaren kudeaketarekin lotuta, Erakundearen esku jarriko diren tresnak edo aplikazio informatikoak bereziki baloratuko dira.

Zerbitzura atxikitako langileen presentzia kontrolatzeko sistema bat ezartzea ere bereziki baloratuko da.

c) Aukerako proposamenak. Gehienez 5 puntu.

Identifikatutako ez parte beste elementu batzuen garbiketa-eskaintza —aparteko ordainsaririk gabe— baloratuko da.

2.2. Proposamen teknikoan 20 puntu baino gutxiago lortzen dituzten proposamenak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

13.-. ARTIKULUA.- KONTRATUA ESLEITZEA. ESLEITU AURREKO DOKUMENTAZIOA

1. Esleitu aurretik, eta eskaera jaso eta biharamunetik hasi eta hamar eguneko epean, kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatuileari, ondoko dokumentu hauek behar bezala sailkatuta aurkez ditzan eskatuko dio:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen agiria. Helburu horrekin, ondorengo dokumentuen jatorrizkoak edo benetako kopiak aurkeztu beharko dituzte:

Kasuan-kasuan eskumeneko organoek luzatutako ziurtapenak, APKaren 13., 14., 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitako forman eta ondorioekin, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzeko.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratu honen xedeari dagokion epigrafean, inskribatuta dagoela ziurtatzen duen frogagiria. Kontratista ez bada Donostian edo Gipuzkoan bizi, matrikula Donostian aurkeztu beharko da, Estatuko gaikuntza badute izan ezik, eta dagokion alta aurkeztuko da, ordaindu izana justifikatzen duen agiriarekin batera bi kasuetan.

b) Behin betiko bermea eratu dela justifikatzen duen agiria.

Esleipen-kantitatearen % 5ekoa (BEZa kanpo) utziko da gordailu gisa. Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategineko 96. artikuluan aurreikusitako moduetan osatuko da bermea. Banku-abal bidez egiten bada, agiri honen I.a eranskineko eredu jarraituko da, eta obligaziodun nagusiarekiko solidarioa izango da; agindu, eskusio eta zatiketako onurei berariaz uko egingo zaie eta lehen errekerimendua egitean ordainduko da. Behin-behineko iraupena edukiko du abalak eta indarrean egongo da Erakundeak berau kitatzea erabaki bitartean. Kauzio-aseguru bidez eratzen bada, kasurako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorren 57. artikulua bidez kasurako xedatutakoa beteko da, eta dokumentua I.b eranskinean Agiri honi atxikitako eredura doitu beharko da.

Behin betiko bermeak estaliko ditu Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 100. artikuluan aipatutako kontzeptuak.

Bermea itzultzeko eta kitatzeko SPKLTBako 102. artikuluan eta horrekin bat datorren gainerako araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

c) 500.000 eurogatik, kontratuaren xede diren lanbide-espezialitateen ondoriozko arriskuengatik erantzukizun zibila estaliko duen poliza espezifiko bat kontratatzekeo primaren ordainketa-frogagiriaren eta polizaren kopia.

d) Kontratua exekutatzean ezartzera edo adskribitzera konprometitu ziren baliabideak benetan badituztela egiaztatzea.

e) Lizitazio-iragarkiei zegozkien zenbatekoak ordaindu izanaren frogagiria.

Ondorio horietarako, enpresa esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.

f) Agiri honetako 9. artikuluan, A gutun-azalean, zortzigarren atalean ezarritakoaren arabera, Kontratatzeko Dokumentu Europar Bakarraren formulario normalizatua betez, lizitatuilearen erantzukizunpeko adierazpen bat erabili izan balitz artikulua horretako lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan ezarritako dokumentazioaren hasierako ekarpenaren orde, dagozkien dokumentuak eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

g) Atzerriko enpresek, esleipendun suertatuz gero, enpresara atxikitako langile guztientzako istripu eta gaixotasun profesioletarako ugazaben mutualitate bat izenpetuta dutela eta kuotaren ordainketan eguneratuak daudela, eta Gizarte Segurantzaren alta eman diela frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Halaber, Estatuko Ogasunarekin, Foru Ogasunarekin eta Donostiako udalarekin zerga-betebeharrak egunean dituztela erakusten duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Aurretik aipatutako epean dokumentazio hori jasotzen ez bada, esleipendunak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, egindako eskaintzen arabera ondoren sailkatutako lizitatzaileri edo lizitatzaileri dokumentazio bera eskatuko zaio edo zaie.

Eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkezten ez badu, eskaintza justifikaziorik gabe erretiratu duela uler daiteke.

2. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa kalifikatuko du eta, ahal izanez gero, saio horretan bertan egingo da kalifikazio hori, kontratua esleitzean. Aurkeztutako dokumentazioa aztertzean zuzendu daitezkeen akatsak edo hutsegiteak hautematen badira, interesdunari jakinaraziko zaizkio. Honek hiru eguneko epea izango du akats edo hutsegite horiek zuzentzeko.
3. Lizitatzailak Agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu edo akatsak zuzentzen ez baditu, Eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, kontratazio-batzordeak hurrengo lizitatzailaren alde esleituko du —eskaintzak sailkatuta geratu diren ordena kontuan hartuta—, dagokion dokumentazioa kasurako ezarritako epean aurkeztu eta gero.
4. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratua proposamen ekonomiko abantailatsuenari esleitu ahal izango dio, esleipen-irizpideen arabera, edo lizitazioa esleitu gabe uztea erabaki dezake. Kontratazio-organoak, kasuan-kasuan txosten teknikoak egin eta gero, kontratua esleituko du, proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean. Epe horretan esleipenik egiten ez bada, enpresariak bere proposamena atzera botatzeko eskubidea du.
5. Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du erakunde kontratugile bakoitzaren kontratazio-organoak. Esleipena hautagaiei edo lizitatzaileri jakinarazi beharko zaie eta kontratazio-organoko kontratatzaile-profilean argitaratu beharko da. Kasu horretan, 151. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da haiei eman behar zaien informazioari dagokionez. Hala ere informazio hori bidaltzeko bost egun balioduneko epea egongo da.
6. Aurkeztutako proposamenak, bai onartutzat deklaraturakoak, bai ireki gabeko baztertutakoak, bai behin ireki ondoren atzera botatutakoak, dagokien espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsorik aurkeztu gabe horretarako epea igaro ondoren, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen esku geratuko da.
7. Kontratazio Organoak kontratua dokumentazioa jaso eta ondorengo bost egun balioduneko epean esleitu beharko du.
8. Esleipena Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

14. ARTIKULUA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

1. Esleipenaren jakinarazpen-agiria jasotzen denetik hamabost egun balioduneko epean emango da kontratua formalizatzeko agiria, eta kontratista esleipendunak nahi badu, eskritura publikoa egin daiteke. Kasu horretan, bere kontura izango dira kontratua formalizatzean eta eskritura publikoa egitean sortutako gastu, zerga, eta abar guztiak.
2. Kontratazio-organoak esleipendunari kontratua bost eguneko epean —errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita— formaliza dezan eskatuko dio, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren eta epe horren kontratuaren formalizazioa etetea eragingo duen errekurtsorik ezarri ez badute. Modu berean jardungo da errekurtsua ebazteko organo eskudunak zigorra kentzen badu.
3. Enpresari esleipendunari egotzi dakizkikeen arrazoiengatik kontratua formalizatu ezin bada, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratuaren suntsiarazpena aginduko du eta

behin betiko bermea konfiskatuko du, betiere eragindako kalte **eta** galeren kalte-ordainak jasotzeko egindako erreklamazioari kalterik egin gabe.

4. Kontratua Enpresa Elkarte bati esleituz gero, berori eskritura publikoan eratu izana egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, eta elkarteari esleitutako IFZ eman beharko dute.
5. Kontratuaren formalizazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik hogeita hamar egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

III. - KONTRATUA GAUZATZEA

15. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren zuzendari-gerentea izango da kontratuaren arduraduna eta bere ardura izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta itundutako prestazioa behar den bezala garatzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak adieraztea.
2. Era berean, zuzendari-gerenteak eskumena du funtzio hori betetzeko beste norbait izendatzeko.
3. Kontratuaren arduradun bat izendatzeak eta dagozkion eskumenak garatzeak ez du esan nahi kontratistak kontratuaren xedea ondo gauzatzeko ardura ez duenik.

16. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

1. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, eta kontratazio-organoak gehienez beste hiru urtez luzatu ahal izango du, Erakundeak kontratistari abian den kontratuaren iraupen-epeko azken hiruhilekoan jakinarazpen frogagarria emanaz. Kasu horretan, kontratista kontratua eta hau arautzen duten agiriak —luzapenak barne— betetzera behartuta dago.
2. Dena den, aurretik aipatutako moduan kontratua ez luzatzea erabakitzen bada, Erakundeak hala nahi izanez gero, esleipendunak zerbitzua ematen jarraituko du beste hiru hilabetez, izenpetutako kontratuaren baldintza berberekin eta adierazitako denborarekiko proportzionalki, Erakundeak beste kontratu bat esleitu ahal izateko.

17. ARTIKULUA.- KONTRATUAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, kontratistak kontratatutako zerbitzuak oker exekututzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, Donostiako Etxegintzak kontratua suntsiarazi —Agiri honen 24. artikuluan adierazitako baldintzetan— edo gauzatzeko jarrai dezaten erabaki dezake. Azken kasu horretan, berariaz eragindako kalte-galerei gehitzeko bidezkoak diren kalte-galeren ondoriozko edozein kalte-ordainez gain, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak ondorengo zigor hauek jaso ahal izango ditu:
 - 500 euro ondorengo ez-betetze hauen ondorioz:
 - Aurreikusitako ordutegia kontuan hartuta, zerbitzua eskaintzen hastean ordu erdi arteko atzerapenagatik.
 - Kontrol-txostenak entregatzean hiru eguneko atzerapenagatik.



- Arrazoi justifikaturik gabe ohiko edo eguneroko garbiketa-plana ez betetzeagatik, oker egiteagatik edo akats bat egiteagatik.
 - 1.000 euro ondorengo ez-betetze hauen ondorioz:
 - Kontratuaren arduradunak eskatzen duen lanpostuetan presentzia-datuak hiru egun beranduago aurkezteagatik.
 - Ohiko langileren baten ordezkapena kontratuaren arduradunarekin adostutako eta adierazitako epean ez egiteagatik, aurreikusitako edozein kontingentzian.
 - 1.500 euro ondorengo ez-betetze hauen ondorioz:
 - Egoera arriskutsuak ekiditeko neurri egokiak ez hartzeagatik.
 - Kontratua betetzen ari ez direlako, esleipendunari lotutako kontratuaren hizketakideari/arduradunari bertaratzeko edo arazoari irtenbidea emateko eskatzen zaion unetik hiru ordu baino gehiago atzeratzen denean.
 - Zerbitzuak eskaintzen hasteko aurreikusitako ordutegiarekiko behin eta berriro atzeratzen direlako.
 - Agiri honetan adierazitako baldintza minimoak betetzen ez dituzten garbiketa-produktuak erabiltzeagatik, garbiketa-produktuak erabiltzean iruzurra egiteagatik edo produktu horiek egoera txarrean edukitzeagatik.
 - Kalitate-kontrolako txostenak zazpi egun beranduago entregatzeagatik.
 - Kontratuaren arduradunak eskatzen duen lanpostuetako presentzia-datuak zazpi egun beranduago entregatzeagatik.
 - Aurreikusitako edozein kontingentzian, ohiko langileak beste batzuegatik ordezkatzean, kontratuaren arduradunak adierazitako edo adostutako egun bateko atzerapenagatik.
 - 2.500 euro ondorengo ez-betetze hauen ondorioz:
 - Jarduera egun bat baino gehiagoz arrazoirik gabe gelditzeagatik.
 - Bi egunez jarraian zerbitzua ez eskaintzeagatik.
 - 3.500 euro ondorengo ez-betetze hauen ondorioz:
 - Esleipendunak langileekiko laneko eta gizarte-segurantzako betebeharrak ez betetzeagatik.
 - Bi egun baino gehiagoz —segidan ala ez— zerbitzua ez eskaintzeagatik.
 - Garrantzi ekonomikoa edozein dela ere, jakinarazpenak, txostenak eta fakturak faltsutzeagatik.
2. Edozein kasutan, bai kontratua suntsiaraztea bai gauzatzen jarraitzea erabakitzen denean, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak berak erabaki ahal izango du egoki iruditzen zaion denboraz lanekin aurrera jarraitzea, bere baliabideen bidez edo hirurgarreneen bidez. Bi kasuetan, lanak egiten jarraitzeak eragindako kostuak kontratistak ordaindu beharko ditu, kalte-galeren kalte-ordainak eta artikulua honetan aurreikusitako gainerako ondorioak kaltetu gabe.
 3. Aurreko paragrafoetan deskribatutako zigor guztiak gauzatuko dira kontratistari edo behin betiko bermearen gainean, guztizko ordainketa edo ordainketa partzial kontzeptu gisa, ordaindu beharko diren kantitateetatik kenduta. Halakorik ezin denean egin, dagokion erreklamazioa egingo da.
 4. Zerbitzua zenbateraino betetzen ari den neurtzeko, eskaintako zerbitzua baldintza horietan esleitu den kalitate-mailaren helburura —esleipendunak proposatua— zein neurritan hurbiltzen den hartuko da kontuan batez ere.

5. Esleipendunak langile guztien ordutegi-kontrolako sistema fidagarri bat ez badu, zerbitzua oker eskaintzen ari dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunaren ohar baten aurrean, frogatutzat emango da ez direla ordutegia betetzen ari, esleipendun horri zigorrak ezartzeko helbururako.

18. ARTIKULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA.

1. Kontratua kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da.
2. Kontratua gauzatzeko kontuan hartuko dira Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta izenpetutako kontratuan finkatutakoa, baita kontratua interpretatzeko Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratistari emandako aginduak ere. Zerbitzua behar bezala eskaintzeko giza baliabide eta baliabide material egokiak erabili behar dira.
3. Kontratistak zerbitzuaz arduratuko den hizketakide bat izendatuko du. Pertsona horrek gai izan behar du eskaini behar diren zerbitzuak zuzentzeko eta kontrolatzeko, baita berehalako informazioa eskuratzeko ere, kontratuaren arduradunak halakorik eskatzen badio. Arduradun horrek Erakundearekin komunikatzeko sistema bat eduki beharko du, sistema horren bitartez, garbiketa-zerbitzuak kontratatuta dituzten eraikinen inguruan sor daitezkeen gorabeheri behar bezala erantzuteko.
4. Kontratuak indarreko legeen eta arauen xedapenak eta ohiko xedapenak –Lan, Gizarte Segurantzza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren alorretan aplikatzekoak– bete behar ditu.

Testuinguru horretan, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zehaztuko dute lizitatzailerek, Agiri honen 9. artikuluan eskatutako proposamen teknikoan. Kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei enpresa esleipendunak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenaren barruan sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Gainera, esleipendunak, kontratua esleitu ondoren, langile horiei ezarriko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eskaini beharko du.

Esleipendunak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren arabera ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan zehaztutako konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, lote horri dagokion kontratua suntsiarazteko arrazoia dago.

5. Baldintza Teknikoen Agiriko 5. artikuluan ezarritako baldintzetan, kontratistak, kontratua formalizatzen denetik hasi eta 15 eguneko epe maximoan, Kontratuaren plan bat aurkeztu beharko du. Bertan bilduko dira garbiketa-lanak egingo diren egunak eta orduak; halaber, kontratua gauzatzeko zerbitzura jartzen diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak adieraziko ditu.

Lan-programa horrek Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratuan finkatutako datak eta epeak errespetatu beharko ditu. Horren inguruan, Erakundeak kontratua betetzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion aldaketak, hedapenak eta definizio-mailak sartzeko eskatu ahal izango du.

Kontratu-baldintzak aldatuko balira, kontratistak programa hau berritzeko eta eguneratzeko obligazioa dauka.

Era berean, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita gehienez 15 egun naturaleko epean, garbiketaren kalitatea gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko plan bat aurkeztu beharko du esleipendunak, Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoarekin bat etorrira.

6. Kontratista berak burututako lanen kalitatearen eta eskainitako prestazioen eta zerbitzuen arduraduna izango da. Halaber, kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, erabilitako metodo desegokiek edo okerrekin Erakundearen edo hirugarrenengan izandako ondorioen arduraduna izango da, baita ikuskapenen kalitate edo erabilitako materialen kalitate eskasarena ere.

Arduragabekeriagatik edo engainugatik, Erakundearen lokaletan, altzarietan, instalazioetan edo edozein jabetzatan kontratistaren langileek eragindako kalte pertsonalak zein materialak esleipendunak ordainduko ditu. Helburu horietarako Erakundea ere hirugarren aldetzat joko da.

7. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak erabakiko du enpresa kontratistak egindako prestazioak kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio. Horretarako, beharrezkoak jotzen dituen neurri guztiak hartzeko eskatuko du, kontratua ondo gauzatzeko dela ziurtatzeko. Kontratistak zentzuzko epe bat edukiko du adierazitakoa betetzeko.
8. Zigorak aplikatu eta ordaindu arren, kontratistari egotzi dakioken atzerapenagatik edo ez betetzeagatik Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kalte-ordainak jasotzeko eskubidea edukitzen jarraitzen du.

19. ARTIKULUA.- FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Esleipendunak kontratuari lotutako betebeharrak hauek izango ditu:

1. Kontratua bere klausulek, Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak adierazten dutenari lotuta betetzea, baita kontratuaren arduradunak kontratistari ematen dizkion jarraibideei lotuta ere.
2. Eskaintzan hitzemandako giza bitartekoak eta bitarteko materialak kontratura atxikitzea.
3. Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak betetzea, eta harekin koordinatuta kontratuaren helburu diren zereginak gauzatea. Halaber, kontratuaren arduradunak egoeraren berri izan behar du etengabe.
4. Kontratuaren xedea gauzatzeko sor daitekeen beste edozein gastu ordaintzea, indarrean dauden xedapenen arabera dagozkion gastu fiskalak, tasak eta zergak barne hartuta.
5. Lan arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren legezko eta arauzko xedapenak eta xedapen konbentzionalak betetzea, baita Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasunari eta osasunari dagozkionak ere, Agiri honetan bildutako baldintzetan. Testuinguru horretan, esleipendunak, kontratuaren gauzate osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren arabera ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inola ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.
6. Kontratuaren indarraldi osoan, agiri honetan adierazitako aseguru-poliza sinatzea eta mantentzea.

Artikulu honetan barne hartutako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharren izaera izango dute SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, erakunde kontratugileak nahi badu.

20. ARTIKULUA.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Esleipendunaren eta langileen arteko hitzarmen kolektibo edo itun berriak aldatzeak ez du eskainitako prezioak gainbegiratzea eragingo.

Dena dela, prezioen azterketa berriaz baztertzen da.

21. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

1. Kontratazio-organoak interes publikoko arrazoen ondorioz aldatu ahal izango du kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 219. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, baldin eta SPKLTBaren 107. artikuluan ezarritakoaren ondorioz lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldarazten ez badira.
2. Gainera, ondoren adieraziko diren kasuetan, baldintzetan eta irismenarekin eta mugarekin aldatu ahal izango da kontratua:
 - a. Izenpetutako datan beste garbiketa-kontratu batzuk amaitu direlako eta luzatu ez direlako, Erakundeak kontratistaren beharra izango lukeenean, eraikinen garbiketa, eta arratoi- eta intsektu-hilketa kontratuan sartzeko.
 - b. b) Gaur egun oraindik eraikita ez dauden baina kontratua indarrean egongo den bitartean eraikiko diren eta garbitzeko beharra duten beste eraikin batzuen garbiketa, eta arratoi- eta intsektu-hilketa kontratuan sartzeko.

Izenpetutako kontratuak amaitu direlako edo zerbitzua eraikin berrietara zabaltzeko, Erakundeak kontratistaren beharra izango lukeen eraikinetan garbiketa, eta arratoi- eta intsektu-hilketa lanetan prezioak aplikatzeko, ondorengo formula hau erabiliko da:

Etxebizitza-komunitate bakoitzeko (hileko prezioa):

$\frac{\sum \text{Etxebizitzentzako hileko esleipen-prezioa}}{\sum \text{jatorriko etxebizitza-kopurua}}$	$\times \text{etxebizitza-kopurua eguneratua}$
---	--

Garaje-komunitate bakoitzeko (hileko prezioa)

$\frac{\sum \text{Garajeentzako hileko esleipen-prezioa}}{\sum \text{jatorriko garajeen azalera}}$	$\times \text{garajeen azalera eguneratua}$
--	---

Helburu horiekin, lizitazailleek, eskaintza ekonomikoan, etxebizitzaren komunitateei dagokien prezioaren zatia eta garajeen komunitateei dagokien prezioa xehatu beharko dute.

Aldaketaren zenbatekoa emaitzazko hileko prezioari kontratuaren iraunaldia amaitzeko falta diren hilabeteen kopura aplikatuz kalkulatu da.

3. Lizitazio motarekiko baja ekonomiko handiena aurkeztu duen esleitutako lotearekiko egingo da kontratuaren aldaketa. Berdinketa gertatuz gero, eskaintza teknikoan puntuazio handiena lortu duen esleitutako lotea nagusituko da. Berdinduta jarraitzen badute, zozketa bidez erabakiko da.
4. Aldaketa hauek lote bakoitzaren esleipen-prezioaren % 20n eragin dezakete gehienez kontratuaren prezioaren ehuneko maximoari dagokionez.
5. Baja ekonomiko handiena aurkeztu duen lote horri egindako aldaketak esleipen-prezioaren % 20ko mugara heltzen badira, ondorengo aldaketak baja ekonomikoko ehuneko handienari dagokionez bigarren geratu den lotearekiko egingo dira, eta horrela egingo da hurrenez hurren, hirugarren paragrafoan aurreikusitakoa aplikatuz.
6. Aurretik aipatutako aldaketa posibleak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

7. Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost eguneko epea izango du bermea egokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.
8. Edozein kasutan aldaketak Erakunde kontratatzaileak eskatuta eta Agiri honetan jasotako baldintzetan tramitatuko dira. Eranskin batean, zehatz identifikatu beharko dira eskaini beharreko zerbitzuak. Eranskin hori bi aldeek sinatu eta kontratuari erantsi beharko zaio.

22. ARTIKULUA.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Inola ere ez da onartuko kontratua lagatzea edo azpikontratzea, kanpoko baliabideekin kaudimena integratzeko aukeraren inguruan SPKLTBaren 63. artikuluan adierazten dena eragotzi gabe.

23. ARTIKULUA.- KONTRATISTAREN LAN, GIZARTE ETA EKONOMIAKO OBLIGAZIOAK

1. Kontratatik Lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Arriskuen Prebentzioarekin erlazionatutako indarreko araudia bete behar du.
2. Kontratatik, esleipendunak edo bere mendeko langileek betebeharrak horietako edozein ez betetzetan edo Lan, Gizarte Segurantza, Segurtasun eta Osasun eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloetako xedapenak ez betetzean ez du erantzukizunik izango Donostiako Etxegintza Etxebizitza Erakunde Publikoak.

24. ARTIKULUA. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

1. Zerbitzuen kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) –85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe–, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharrak urratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
2. Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; horretarako nahikoa izango da erakunde kontratugileak enpresa esleipendunari horren inguruan hartutako jakinarazpen frogagarria bidaltzea. Horrez gain, dagozkien kontratuen likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian xedatzen denaren arabera.
3. Aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztea eragiten duten erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak hura gauzatzeko jarraitu ahal izatea, edo beste kontratazio bat egitea.

Suntsiarazten bada, enpresa esleipendunak benetan egin dituen lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du, hasiera batean.

4. Enpresa esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik suntsiarazten bada kontratua, kontratuaren guztizko prezioaren % 20 pareko kantitatea zergapetuko da erakunde kontratugilearen alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain. Bi kantitateak behin betiko bermetik eta/edo kontratatari ordaintzeke dagoen prezioetik kenduko dira eta, hala badagokio, soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.
5. SPKLTBaren 223 g) artikuluan jasotako arrazoiengatik suntsiarazten bada, kontratatik egin gabe utzitako zerbitzuaren zenbatekoaren % 3ko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, baldin eta kausa berari egozten ez bazaio.

25. ARTIKULUA. BERMEA ITZULTZEA

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratu honen likidazioa onartuta eta berme-epari dagozkion hamabi hilabeteak igarota, berme horren inguruan gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago, berme hori itzultzeko erabakiko da.

I.A ERANSKINA - BEHIN BETIKO BERMEAREN ABAL EREDUA

..... erakundeak (kreditu-erakundearen sozietatearen izena), IFK eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) ... kalean/plazan/ hiribidean duenak (PK:), eta haren izenean eta ordezkatuz (ahalordedunaren izen-abizenak),ko Notario jaun/andre(ar)en aurrean —..... protokolo-zenbakia(k) eta indarrean daudela adierazten dutenko Merkataritza Erregistroan inskribatua(k)— emandako datako eskritura publiko(ar)en ondorioz egintza honetan derrigortzeko behar beste ahalorde duenak honako

ABALA EMATEN DIO

IFZ/IFK eta helbide soziala ... kalean/plazan/ hiribidean duen ri, Lehiaketa arautu zuen eta alde kontratatzaileek sinatuko duten Klausula Ekonomiko Administratibo partikularren Agiriaren artikuluan xedatutakoa betez. Kontratuaren zati izatera pasatuko da, Klausula Ekonomiko Administratibo partikularren Agiri horren artikuluan adierazitako kontzeptuei erantzuteko behin betiko berme-kontzeptu gisa, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurrean Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Babes Publikoko Etxebizitzen eraikinen garbiketa-zerbitzuaren kontratuaren esleipenetik ondoriozta daitezkeen kontzeptuei erantzuteko.

Abal hori abal solidarioa izango da obligaziodun nagusiaren aurrean (adierazi esleipendunaren izena), eta berariaz egiten zaio uko Kode Zibileko 1830 eta ondorengo artikuluek eta horiekin bat datozenek aipatzen dituzten eskusio- eta zatiketa-onurei. Halaber, konpromisoa hartzen du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren lehen errekerimenduan ordaintzeko.

Abal hau indarrean egongo da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak berariaz eteteko baimena eman bitartean.

Donostia, koarena

Sinadurak

Abal hau Abalen Erregistro Berezian inskribatu da data berean, zenbakiarekin.

I.B ERANSKINA - BEHIN BETIKO BERMEKO KAUZIO ASEGURU EREDUA

" ziurtagiri-zenbakia

(1) (aurrerantzean aseguratzaila), helbideako
..... kalean duena, eta IFZ duena, (2) jaunak/andreak behar
bezala ordezkaturia, eta egintza honetan derrigortzeko behar beste ahalorde duenak,
.....aren arabera

HONAKO HAU ASEGURATZEN DU

(3) IFZ/IFK

aseguru-hartzaile gisa, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren —aurrerantzean aseguraturia— aurrean, (4) (letra eta zifra bidez idatzia) zenbatekora arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean, hori garatzen duen araudian, eta klausula ekonomiko eta administratiboen agirian —Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzaren eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua arautzen dutena—, eta eraikuntza-obren zuzendaritza fakultatiboan ezarritako terminoetan eta baldintzetan, behin betiko berme-kontzeptu gisa,; aseguraturaren aurrean lehen aipaturako arauen eta gainerako administrazio-baldintzen arabera ondoriozta daitezkeen betebeharrak, zigorrei eta gainerako gastuei erantzuteko.

Aseguraturak bere ardurapean aitortzen du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorren 57.1. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela.

Prima —bakarra, lehena edo ondorengoa— ordaindu ez izanak aseguraturari ez dio kontratua suntsiarazteko eskubidea emango, kontratua ez da iraungiko eta aseguraturak ez da estaldurarik gabe utziko, ezta bere betebeharrak salbuespen salbuespen utziko ere —aseguraturak bermea ordaindu behar badu—

Aseguraturak aseguratuari ezingo dizkio aseguru-hartzailearen aurka hari dagozkion salbuespenak ezarri.

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren lehen errekerimenduan aseguraturari kalte-ordainak emateko konpromisoa bere gain hartzen du aseguraturak, SPKLTBan eta garapen-arauetan ezarritako baldintzetan.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak edo bere izenean lege horretarako gaituko duenak aseguraturaren indargabetzeko edo itzultzeko baimentzen duen arte, SPKLTBan eta legeria osagarrian ezarritakoarekin bat etorrita.

.....koarena

Sinadura:

OHARRA: Behin betiko bermeen kasurako, abalazten den erakundea enpresarien batasuna den guztietan, ez dira onartuko batasuna osatzen duten enpresetako bat bakarrik bermatzen duten bermeak. Bermeak aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztiak bermatu behar ditu.



Hala, berriaz jasoko da ABEE osatzen duten gainerako enpresekiko erantzukizuna bateratua eta solidarioa dela.

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- (1) Erakunde aseguratzailearen arrazoi sozial osoa adieraziko da.
- (2) Ahaldunaren edo ahaldunen izena eta abizenak.
- (3) Pertsona aseguratuaren izena.
- (4) Eratutako aseguruaren zenbatekoa.

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak, nazionalitatea,ko kaleko
zenbakian helbidea, eta NAN zenbakia —.....an luzatua datarekin— dituenak, bere
izenean edo enpresa —helbidea:....., telefonoa:, fax: eta IFK:
.....— ordezkatuz (bere ahalordea erantsi da), honakoa

ADIERAZI DU

I.- Ezagutzen duela prozedura ireki bidez Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzaren eraikinen garbiketa-zerbitzuaren kontratua lizitzatzeko iragarkia, eta ezagutzen dituela Baldintzen Agirian ezarritako baldintzak, betekizunak eta betebeharrak. Era berean, berariaz aitortzen du Baldintzen Agiriko edukia ezagutzen duela eta osorik onartzen duela, eta konpromisoa hartzen du kontratua eskainitako baldintzetan gauzatzeko, loteentzako euro +euroko aurrekontuagatik.

Hona hemen lote bakoitzerako aurrekontuaren xehakapena:

- 1. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion , €.
- 2. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion , €.
- 3. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion , €.
- 4. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion , €.
- 5. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion , €.
- 6. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion , €.
-

21. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, lote bakoitzerako eskaintza honela xehakatzen da:

- 1. lotea-..... € , BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
- 2. lotea-..... € , BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
- 3. lotea-..... € , BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
- 4. lotea-..... € , BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
- 5. lotea-..... € , BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe

III. ERANSKINA - PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA, ALDI BATERAKO ENPRESARIEN ELKARTEAK AURKEZTEN DIRENEAN

..... jaunak/andreak, nazionalitatea, etako kaleko zenbakian helbidea duenak, eta NAN duenak, bere izenean edo enpresa ordezkatuz —helbidea:ko kaleko zenbakian; telefonoa:; fax: eta IFK—

..... jaunak/andreak, nazionalitatea, etako kaleko zenbakian helbidea duenak, eta NAN duenak, bere izenean edo enpresa ordezkatuz —helbidea:ko kaleko zenbakian; telefonoa:; fax: eta IFK:—

.....ren partaidetzan (enpresa bakoitzaren parte-hartzea adierazi) aldi baterako enpresari-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela; eta jauna/andrea —NAN:, nazionalitatea:; helbidea:ko kaleazenbakia; telefonoa: fax:— guztien ordezkariz izendatzen dutela Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurrean ordezkatzeko. Obrak esleitzen bazaizkie, haren ahalordea eta eraketa-eskritura Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari entregatuko zaizkio, dagokion Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, euren IFKekin batera, hauxe

ADIERAZI DUTE

I.- Ezagutzen dutela prozedura ireki bidez Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzaren eraikinen garbiketa-zerbitzuen kontratua lizitatzeko iragarkia, eta ezagutzen dituztela Baldintzen Agirian ezarritako baldintzak, betekizunak eta betebeharrak. Era berean, berariaz aitortzen dute Baldintzen Agiriko edukia ezagutzen dutela eta osorik onartzen dutela, eta konpromisoa hartzen dute kontratua eskainitako baldintzetan gauzatzeko, loteentzako euro +euroko aurrekontuagatik.

Hona hemen lote bakoitzerako aurrekontuaren xehakapena:

- 1. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion €.
- 2. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion €.
- 3. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion €.
- 4. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion €.
- 5. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion €.
- 6. lotea-..... € , gehi BEZari dagozkion €.

21. artikuluan aurreikusitako balizko aldaketen ondorioetarako, lote bakoitzerako eskaintza honela xehakatzen da:

- 1. lotea-..... € , BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... € , BEZ gabe

- 2. lotea-..... €, BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
- 3. lotea-..... €, BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
- 4. lotea-..... €, BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
- 5. lotea-..... €, BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
- 6. lotea-..... €, BEZ gabe, honela xehakatuta:
 - Urteko prezioa etxebizitzaren komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe
 - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: ... €, BEZ gabe

Loteren bat esleituko balitzait, dagokion kontratu-aldaketa bidez, loteetan adierazi ez diren sustapen berrietarako edo eraikita egon arren zerbitzurik gabe geratzen diren etxebizitzengatik Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak behar dituen premia berrien arabera garbiketa, eta arratoi-eta intsektu-hilketa zerbitzuak egiteko konpromisoa hartzen dut. Zerbitzu hori kontratuan aurreikusitako epean eskainiko dut eta Baldintza Ekonomiko Administrazioen Agiriko 21. artikuluan aurreikusitako moduan.

Prezioen barruan daude kasuan-kasuan esleitutako lan guztiak, Agiri honetan adierazitakoak, eta gauzatzean sor daitezkeen gastu guztiak, besteak beste: joan-etorrien gastuak, langileen gastuak —derrigortutako langileen subrogazioen ondorioz sor daitezkeen gastuak barne—, administrazio-gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.

II. Nik ordezkatzeko dudaren enpresak, jarduerak hasteko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiko baldintzak eta betebeharrak betetzen ditu, baita Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzeak ere.

Donostia,(e)koaren(e)a

Sin.: Sin.:

NAN: NAN:

**IV. ERANSKINA - JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA
AUKERATZEA ERAKUNDE MAILAKO GARDENTASUN ADIERAZPENA.**



..... jaunak/andreak, adin nagusia denak eta NAN zk.a duenak, bere izenean edo enpresen ordez, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoko babes publikoko etxebizitzaren eraikinen garbiketa-kontratuaren lizitazioarekin loturik (..... esp.), Erakundetik aipatutako lizitazioarekin lotuta egin beharreko jakinarazpen oro, honako bitartekoa erabiliz egitea nahi dut:

* ... Faxa:

* ... helbide elektronikoa (irakurri izanaren eta jaso izanaren adierazpenarekin):

(* Adierazi X bidez aukeratutako bitartekoa, baita hautatutako bitartekoaren datua ere.

Era berean, datu interesgarri hauek adierazten dira:

Harremanetarako telefonoa(k):

Helbide elektronikoa (goian adierazi ez bada):

Fax: (goian adierazi ez bada):

Posta-helbidea:

(Enpresak) – Enpres(ar)en IFK:.....

(Pertsona fisikoak) – Lizitzailearen NANA:.....

Era berean, eta dokumentu honen bitartez, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak lizitazio-, esleipen- eta gauzatzeko-prozesuaren ondoriozko datu guztiei erakunde-mailako gardentasuna ematea berariaz onartzen duela adierazten du (esleipendun gertatzen bada).

.....koarena

Sin.:

Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, enpresa edo pertsona lizitzailearen helbide elektronikoari edo fax-zenbakiari lehentasuna ematea gomendatzen da. Jakinarazpenak lizitzaileak aukeratutako bidetik egingo dira eta balio osoa izango dute.

Ez bada aukerarik egiten, posta ziurtatu bidez egingo dira jakinarazpenak, adierazitako helbidean.